

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

## Foru Aginduak

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

1542

**169/2007 FORU AGINDUA**, otsailaren 28koa. Honen bidez, Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren urtarilaren 25eko 29/2007 Foru Aginduak ezarritako baldintzak bete direla onartzen da. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Labastidako Planeamenduaren Ordezko Arauen xedapen aldaketaren espediente, Zi2B eta Zi3 egikaritze unitateak berriro mugatzeari dagokiona.

## AURREKARIAK

Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren urtarilaren 25eko 29/2007 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen Labastidako udal planeamenduko ordezko arauak aldatzeko espediente, Zi2B eta Zi3 egikaritze unitateak berriro mugatzeari dagokiona.

Foru agindu horrek betearazte-indarra izan zezan, baldintza bat jarri zen: bertan adierazitako aldaketak espedientean jasotzea.

Labastidako Udalak, 2007ko otsailaren 14an, espedientearen testu bateratua igorri zuen foru aldundira, betearaztekoa zela aitortuz.

## OINARRIAK

Espediente osatzen duten agiriak aztertu ondoren, aipatutako foru aginduan ezartzen ziren aldaketak bete direla egiaztatzen da.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

## XEDATU DUT:

Lehenengo.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren urtarilaren 25eko 29/2007 Foru Aginduan betetzeko agindutako baldintzak betetzat ematea. Foru agindu horren bidez behin betiko onarpena eman zitzaion Labastidako udal planeamenduko ordezko arauen xedapen aldaketaren espedienteari –egikaritze unitateak berriz mugatzea–, udalak berak izapidetutakoari.

Bigarrena.- Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarren. Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, beren interesen alde abiaraz dezaketzen beste edozein neurritz gain, ondoko errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoaren aurrean, ekintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsioaren aurretik, berraztertze-errekurtsioa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko otsailaren 28a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

## Órdenes Forales

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

1542

**ORDEN FORAL 169/2007**, de 28 de febrero, de aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral nº 29/2007, de 25 de enero, de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, por la que se aprobó definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Labastida, referente a la redelimitación de las unidades de ejecución Zi2b y Zi3.

## ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral nº 29/2007, de 25 de enero, de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, se aprobó definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Labastida, referente a la redelimitación de las unidades de ejecución Zi2b y Zi3.

La ejecutoriedad de la citada Orden foral, no obstante, quedó condicionada a la introducción en el expediente de las modificaciones que se señalaban en la misma.

Con fecha 14 de febrero de 2007, el Ayuntamiento de Labastida ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente a fin de que sea declarada la ejecutoriedad del mismo.

## FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las modificaciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

## DISPONGO:

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral nº 29/2007, de 25 de enero, de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, por la que se aprobó definitivamente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Labastida, referente a la redelimitación de las unidades de ejecución, promovido y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 28 de febrero de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

**KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA**

1528

**130/2007 FORU AGINDUA, Arabako Billar Federazioaren Estatutuak onartzen dituen.**

Euskadiko kirol federazioen gaineko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak dio, lehen xedapen iragankorrean, kirol federazioek egokitu egin behar dituztela euren estatutuak Dekretu horrek xedatutakora.

Dekretu horren 65.2 artikulua dio Arabako kirol federazioen estatutuak Arabako Foru Aldundiko dagokion organoan aurkeztuko direla, onartzeko.

Arabako Foru Aldundian kirolaren arloa Kultura, Gazteria eta Kirol Sailari dagokio.

2007ko otsailaren 6ko data duen 1846 idazkian, Arabako Billar Federazioak eskatzen du onartzea 16/2006 Dekretura egokitu eta 2007ko urtarrilaren 25eko Aparteko Batzar Nagusian onartu dituen estatutu berriak.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

**XEDATU DUT:**

Lehenengoa. Arabako Billar Federazioaren Estatutuak onartzea. Euskadiko kirol federazioen gaineko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretura egokituta eta Foru Agindu honi erantsita daude.

Bigarrena. Ebazpen hau eta bere Eranskina Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena. Arabako Billar Federazioaren Estatutuak Foru Agindu honen bidez onartu izanaren kopia bidaltzea Eusko Jaurlaritzaren Kirol Entitateen Erregistrora.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko otsailaren 28. – Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko Diputatua, FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN.

**Foru Aginduaren eranskina****ARABAKO BILLAR FEDERAZIOAREN ESTATUAK****I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Arabako Billar Federazioa irabazteko xederik gabeko entitatea da. Nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena du, eta kirolariak, teknikariak, epaileak, kirol klubak eta elkarteak eta beste entitate batzuk biltzen ditu bere baitan, Arabako Lurralde Historikoan billar modalitate desberdinak praktikatzeko, sustatzeko eta antolatzeko.

Arabako Billar Federazioak ondorengo diziplina hauek hartuko ditu beregan:

- a) Billarra
- b) Poola
- c) Snookerra

**2. artikulua**

Arabako Billar Federazioak lege arau hauek ditu gidari: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena; 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua, Euskadiko kirol federazioena; Legea garatzen duten gainerako xedapenak; estatutu hauek; berariaz presatutako araudiak; eta bere organoek baliotasunez hartutako erabakiak.

**3. artikulua**

Helbide honetan du egoitza Arabako Billar Federazioak: Zerkabarren, 5-behea (Kirol Etxea), 01001 Gasteiz (Araba).

**4. artikulua**

Arabako Billar Federazioak Arabako Lurralde Historikoko billarreko kirol jarduera eta lehiaketa ofizialak eta, kasuan kasu, modalitate horretan antolatzen edo zehazten diren diziplinak sustatu, kalifikatu, baimendu, zuzendu eta antolatzen ditu, Euskadiko Billar Federazioari dagozkion eskumenen nahiz Arabatik kanpo gauzatu ditzakeen jardueren kaltetan izan gabe.

**DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES**

1528

**ORDEN FORAL 130/2007 que aprueba los Estatutos de la Federación Alavesa de Billar.**

El Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco señala, en su disposición transitoria primera, que las federaciones deportivas adaptarán sus actuales Estatutos a lo dispuesto en el citado Decreto.

El artículo 65.2 del citado Decreto señala que los Estatutos de las federaciones territoriales deportivas alavesas se presentaran para su aprobación en el órgano competente de la Diputación Foral de Álava.

Correspondiendo la materia de deportes de la Diputación Foral de Álava al Departamento de Cultura, Juventud y Deportes.

Con escrito número 1846, de fecha 6 de febrero de 2007, la Federación Alavesa de Billar solicita la aprobación de los nuevos Estatutos adaptados al Decreto 16/2006, aprobados por la Asamblea General Extraordinaria celebrada el 25 de enero de 2007.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

**DISPONGO:**

Primero. Aprobar los Estatutos de la Federación Alavesa de Billar adaptados al Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, que se incorporan como anexo a esta Orden Foral.

Segundo. Publicar la presente resolución y el anexo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero. Remitir copia de la aprobación de los Estatutos de la Federación Alavesa de Billar aprobados por esta Orden Foral al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2007. – Diputado de Cultura, Juventud y Deportes, FEDERICO VERASTEGUI COVIAN.

**Anexo a la Orden Foral****ESTATUTOS DE LA FEDERACION ALAVESA DE BILLAR****TITULO I****DISPOSICIONES GENERALES****Artículo 1**

La Federación Alavesa de Billar es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica y capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes, agrupaciones deportivas y otras entidades para la práctica, promoción y organización de la modalidad de billar en el Territorio Histórico de Alava.

La Federación Alavesa de Billar tendrá integradas las siguientes disciplinas:

- a) Billar
- b) Pool
- c) Snooker

**Artículo 2**

La Federación Alavesa de Billar se rige por la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco; así como por el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, y demás disposiciones de desarrollo de la Ley; por los presentes Estatutos y reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

**Artículo 3**

La Federación Alavesa de Billar tiene su domicilio en la calle Cercas Bajas, número 5-bajo (Casa del Deporte) de Vitoria-Gasteiz Código Postal 01001 (Álava).

**Artículo 4**

La Federación Alavesa de Billar impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones deportivas oficiales de la modalidad deportiva de billar, en su caso, las disciplinas de dicha modalidad que se configuren o definan en el ámbito territorial de Álava, sin perjuicio de las competencias que son propias de la Federación Vasca de Billar ni de las actividades que pueda realizar fuera de Álava.